

AURKEZPENA

*Irakana ez da gure, jitekoa ez da gure;
ez da gure presentean dena baizik.*

Astoa idulkian dakar GOGOaren azalak. Hizkuntzaz miretsia dator GOGOaren mamia. Hizkuntzari begiraten dio hainbat ikuspegitatik, hala nola, psikolinguistikatik, semantikatik, pragmatikatik eta filosofiatik. Baina hizkuntza ez da begiko duen gai bakarra. Hasteko, logika matematikoaren historiari buruzkoa da Jesus Mari Larrazabalek egin duen itzulpena. Hao Wangen liburu ezagun bateko lehen kapituluan, logika matematikoaren ehun urte aberatsenetakoen errepaso egiten da modu argi, zehatz eta laburrean. Itzultzaileak bezala, GOGOak ere gogoan du Andolin Eguzkitza zena, 2005eko amaiera arte gure erredakzio batzordeko kide izan behar zuena.

Zabal-zehatz begiraturaz atalekoak ere ez du zuzenean hizkuntzarekin ikustekorik. Piaget da gaia. Haurren garapenari eta ikaskuntzari buruzko Piageten teoriaren aurkezpen zabal kritikoa egiten digu Mikel Haranburuk. Piageten lanak erreferentzia garrantzitsua izaten jarraitzen duela gogoratzen digu.

Garapena du gai gisa unibertsitateen eta diziplinen arteko elkarlanaren emaitza den hurrengo artikulua ere. Garapena eta hizkuntza —lexikoaren eta gramatikaren erlazioa— ikertu dituzte Andoni Barreña, Iñaki Garcia, Margareta Almgren eta Nekane Arratibelek.

Eta garapena ez baina hizkuntza du Joana Garmendiak ere aztergai. Hizkuntzaren erabilera «berezi»tzat hartu ohi den ironiaren estudioan azaltzen diren garrantzizko arazo batzuk aztertzen ditu pragmatikaren ikuspegitik.

Liburu kritiken atalean, berriz, hizkuntzaren filosofiako gai «klasiko» batean azken aldian egin den ekarpen garrantzitsu bat eztabaidatzen du Ekain Garmendiak: Kripkeren bidetik aurrera egin nahi duen Soamesen *Beyond Rigidity*. Larraitz Zubeldiak euskarazko hainbat partikularen azterketa semantikoa egiten duen Jendrascheken *La modalité épistémique en Basque* ren berri dakargu.

Ohi bezala, liburu berrien aurkezpen laburrek eta kongresu, jardunaldi eta ikastaroen iragarpenek ixten dute alea. Ohi ez bezala, 2006an GOGOAREN atontze lan asko Euskal Herritik kanpo egin ditugu. Ez dugu uste horrek gogoan eta GOGOAN aparteko eraginik izan duenik; ez kaltekorik behintzat. Astoak euskaraz egiten du arrantza.

Zuzendariak

Stanforden, 2006ko apirilaren 28an